



*abaraxka*

AZKOITIA HOSTEL

TURISMO ATERPETXEA  
BSS00037

# ZATOZTE ABARAXKARA, ZATOZTE MENDIRA



**Erlojuaren orratzen zentzuan eta Kakuteko kurutzea hamabiak bezala hartuta, hauek dira Azkoitia inguratzen duten mendirik handienak:**

- Iparraldera, gain-gainean, Izarraitz mendikatea.**
- Ekialdera, Azpeitia pasata, Hernio.**
- Hegoaldera, Abaraxkatik igota, Samiño, eta gero Izazpi.**
- Mendebaldera, arku zabal bat eginez, Irukurutzeta.**

**Denak mila metro ingurura altxatzen dira.**

**Izarraitzera, Samiñora eta Irukurutzetara igotzeko Abaraxkatik bertatik atera daiteke. Herniora joateko hurbiltzea komeni da, Errezilera, esate baterako.**

**Ez dira Aitzkorri edo Aralar, baina txikiak ere ez dira, ondo prestatua eta ekipatua joatea komeni da, beraz, eta goialdeetan ia nahi adina luzatu daitezke ibilbideak. Guk proposamen batzuk egingo dizkizuegu, baina informazio gehiago nahi izanez gero, eskatu lasai Abaraxkan.**

**Bitxikeri bat, bakoitza aurkeztu aurretik: gaur ikusten ditugun tontorrak garai bateko bailaren punturik bajuenak ziren. Erosioak eraginda, bailarak gailur bihurtu baiziren. Mendi ederrak izango ziren haiek! ;-)**

**Gailurretatik aparte, jakina, ibilbide lasaiak eta ederrak egiteko aukera gehiago da Abaraxkatik abiatuta, halanola Munoaundiko Burdin Aroko Herri Harresitura, Astarbera (Kukuerrri bailaran), Bide Berdea jarraituz Loiola aldera edota Urretxu-Zumarragara, eta Kukuerrin gora hartuz Loiolara jeisten den bide ederra.**

Gailur nagusiak: **Kakute (942 m), Xoxote (899) eta Erlo (1.030)**

Distantzia Abaraxkatik Erlora: **1,50 ordu (6 km)**



Izarraitz, elurtuta, Abaraxkaren gainean dagoen gure banku "sekretutik" ikusita.

## Izarraitz, kareharriaren erreinua

Xabier Beristain Aizpururen baimenarekin, bere bideo eder batekin aurkeztuko dugu Izarraitz: <https://izarraitzmendigunea.eus/>

Edozein aldetik igo daiteke Izarraitzera, Azkoititik behetik edo Attolaraino autoz joanda, Azpeititik, Zestoatik... baina, gaur, Izarraitzeko Bira (IB) proposatuko dizuegu, ibilbide zirkularra eta baliztua, gainera igo gabe mendikateari buelta osoa ematen diona. Urola Turismok egindako lan zoragarria aprobetxatuko dugu 17,4 km-ko bira aurkezteko, eta baita gailurretara igotzeko ibilbideak proposatzeko ere: <https://urolaturismoa.eus/es/naturaleza/izarraitz/>

Goian, Xoxoteko Aterpea aurkituko duzue, San Inazioren estatua baino pixka bat lehenago, eta bata hainbat iturri ere, Ixkitturrikoa, esate baterako, Kakuteren bestaldean.

Izarraizko Biraren PDF-a:

<https://urolaturismoa.eus/wp-content/uploads/2021/06/IZARRAITZ-2020-mapa-traz.pdf>





Gailur nagusiak: **Samiño (932 m) eta Izaspi (970)**

Distantzia Abaraxkatik Samiño gainera: **1,50 ordu (9 km)**



Samiño gaina (ezkerrean, atzean, Izaspi), Munoaundiko Burdin Aroko Herri Harresitutik ikusita.

## Samiño, txorien pasaleku

Samiño ederra da ibiltzeko. Izarraitz harria baldin bada, Samiño belarra da, eta mila metrora iristen ez bada ere, ez dago hortik urrun: Samiñok 932 metro ditu eta Izaspik 973.

Trikuharri batzuk ere badira bertan (Pagobakarra, Iruarrieta...) eta, udazkenean, txori eta hegaztien pasaleku ikusgarria da. Aralarri begira dagoen mendia da Samiño.

Abaraxkatik zuzenean igotzea proposatzen dizuegu, Munoaunditik, eta Izaspira zuzentzea lehenengo, eta handik Samiñora eta buelta Martirietako bidea jarraituz: 25 km inguru. Dezente ibili behar da, beraz, eta forma onean egotea komeni da. Izaspitik Samiñorako tartea, gaina jarraituz, zoragarria da.

**<https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/desde-azkoitia-al-cordal-de-izazpi-samino-ascenso-por-igarate-y-descenso-por-martirie-64567808>**





Gailur nagusiak: **Irukurutzeta (898 m), Kurutzezarra (897) eta Kurutzebakar (902)**  
Distantzia Abaraxkatik Irukurutzetara: **1,40 ordu (8,4 km)**



Irukurutzetako tontorretik sekulako ikusmira dago.

## Irukurutzeta, trikuharrien gaina

Irukurutzeta edo Elosumendi pixka bat apalagoa da, neurritz behinik behin, baina altxor bat ezkutatzen du bere gainaldean: Trikuharrien Ibilbidea, 19 trikuharriz osatua. Gure webguneko Planen barruan duzue proposamena. Barandiaranen Arrastoa izenpean:

**<https://abaraxkahostel.com/eu/taldeentzat/planak/>**

Ibilbide zirkularra proposatzen dizuegu, baina Santutxutik abiatuta, Elosu gainetik (Gorlatik ere egin dezakezue, kantina inguruan autoa utzita). Behin hasierako aldapa igota, gainaldean gora eta behera ibiliko zarete. 615 metroko altueratik abiatuta, gehienez 897ra igoko zarete.

**<https://www.debarrenaturismo.com/eu/zer-ikusi/natura/ibilbideak/prgi94>** -en aurkituko duzue deskargatzeko moduko ibilbidea, Wikiloc erabiliz.

Abaraxkatik abiatuz gero, biderik ohikoena Urrategiko auzotik gora igotzea da, pagadien artean: **<https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/azkoitia-urategi-irukurutzeta-azkoitia-39607533>**



PDF-a deskargatzeko:

<https://urolaturismoa.eus/wp-content/uploads/2021/06/Hernio-EUS-CAS.pdf>



Hernio, lainopear, Zelatuneko lepotik.

## Hernio, bailarako altuena

Ikutu alpinoa du Herniok Zelatunetik gora abiatzen zarenean. zarraitz bezala, Kontserbazio Bereziko Eremu deklaratu dago eta Red Natura 2000 sarean sartua.


Punturik gorenean 1.078 metrora iristen da mendilerro hau. Inguru osoa, mendiaren buelta osoa, oso naturala dela esan genezake, magaleetan dauden herri txiki eder batzuk kenduta ez dagoelako humanizatuegia. Herri horietako batzuetatik abiatzen dira ibilbide ezagunenak.

Urola Turismoren webgunean aurkituko dituzue aukera batzuk. Errazena, beharbada, Iturburu gainetik abiatzen dena da, Bidanira iritsi baino pixka bat lehenago. Errezildik gogorragoa da, zuzen-zuzen igoko zaretelako. Aia ingurutik ere ederra da, Ipar ikutuarekin. Ondo pasa!

<https://urolaturismoa.eus/natura/hernio/>











**Abaraxka Azkoitia Hostel, Karmeldarren komentu ohia, Euskal Herriaren bihotzean dago, Gipuzkoan, Urola bailararen erdialdean.**

**Azkoitia 12.000 biztanle inguru dituen herria da. Euskal Herrian dagoen eremu euskaldunenetako batean kokatua, Loiolako Santutegitik 3 kilometrora. Abaraxka herriaren gainkaldean dago. Zentroa, oinez, 5 minutu pasatxora dago bakarrik. Kukuerri izena duen bailara txiki baten hasieran, Munoandi-ko Burdin Aroko herri harresituaren bidean.**

**Mendiei (herriak bueltan dituen mendi guztiei) begira gaude, inguru naturalean beraz, gune lasai eta seguruan.**

**Abaraxkan, guztira, 50 pertsona sar daitezke lotara, lasai eta eroso. Jatetxe ederra ere badaukagu (bertatik Loiolako Santutegia eta Hernio mendia ikusi daitezke) eta mota askotako ekimenak antolatu ahal izateko areto mundiala, 100 pertsonantzako kapazidadearekin (Izarraitz mendikatera begira)**

**Hiru terraza zoragarri eta lorategia ditu Abaraxkak.**

**Eta, gainera, Espainia, Frantzia eta Portugal mailako BikeFriendly Kalitate Ziurtagiria dugu, bizikletan datozenentzat zerbitzu esklusiboekin.**




## ATERPETXEKO ESPAZIOAK

Aterpetxean **50 ohe ditugu, zazpi gelatan banatuta**. Guztietan 90x1,90 neurriko oheak daude, oso erosoak. Gela guztiak oso argitsuak dira. Hiru logela Loiolako Santutegiari begira daude eta besteak hegoaldeko basoei begira.

Bi bainugela handi daude pasillo berean. Hirugarren bainugela bat mugikortasun arazoak dituztenentzat egokituta dago. Ile-lehorgailuak eta eskutako zein dutxarako gelak daude bainugelatan.

Sala txiki bat dugu prestatua, mikrouhinarekin eta hozkailuarekin. Bere ondoan, terraza zoragarri bat.



## BI SOLAIRUKO ETXEA ETA TERRAZA

104m<sup>2</sup>ko etxea 10 pertsonak bertan lo egiteko prestatua. Gune independente bat da: hiru logela, bi bainugela oso, sukaldea eta saloia ditu, eta ikusmira mundiala duen terraza pribatua. Landetxe moderno baten izpiritua du.

## 90m<sup>2</sup>tako JANGELA

Abaraxkako jangela espazio zabal bat da, leihate handi batekin. Bertatik, Loiolako Santutegia eta inguruko mendiak ikusten dira: Txalintxo inguruko gainak edota Hernio mendia.



## 165m<sup>2</sup>tako ARETOA

Ikastaroak, bilerak, topaketak, ospakizunak, musika, antzerkia... iha edozer antolatzeko modukoa. Izarraitz mendikateari begira.



## 2021/22rako PREZIOAK

	<u>Behe denboraldian</u>	<u>Goi denboraldian</u> Apirilak 10-Abuztuak 31
Literako ohe bat + gosaria	25€	30€
Pentsio erdia (gutxienez 12 pertsona)	37€	44€
Pentsio osoa (gutxienez 12 pertsona)	47€	54€
Izara jokoa	3€	3€
Toalla	2€	2€

<b>Bi solairuko ETXE osoa (10 pertsona gehienez)</b> (gutxienez 2 gau Behe Denboraldian eta 4 gau Goi Denboraldian)	220€	250€
<i>+ 5€ gosaria + 12€ P.Erdia + 22€ P.Osoa + 3€ izara jokoa + 2€ toalla Behe denboraldian</i>		
<i>+ 5€ gosaria + 14€ P.Erdia + 24€ P.Osoa + 3€ izara jokoa + 2€ toalla Goi denboraldian</i>		

	<u>Egun erdia</u>	<u>Egun osoa</u>
<b>165m2ko erabilera anitzeko aretoa (100 pertsona)</b>	Galdetu	Galdetu

- Prezioetan BEZa barne dago.
- Pentsio erdia edo Pentsio osoa 12 pertsona baino gehiagoko taldeentzat (asteburuetan banakakoentzat ere bai). Menu bereziak ere prestatzen ditugu.
- Gosari kontinental. Gosari bereziak ere prestatzen ditugu.
  - Prezioan barne dauden azpiegitura eta zerbitzuak: Egongela, inguruko berdegunea, wifia, parkina, igogailua, terraza eta bizikletak gordetzeko eta konpontzeko lekua horretarako bereziki prestatua.
  - Aurrez eskatu ezker animaliak onartzen ditugu. Ezin dute jangelan eta aretoan sartu.
  - Harrera noiz: Sartu 16:00-21:00 (bestelako aukerak ere badauzkagu. Galdetu lasai.) Irten 12ak baino lehen



Aurrekontua eskatu dezakezu  
**679464473** telefonora deituz edo  
**info@abaraxka.eus** korreora  
idatziz, inolako konpromisorik gabe

